

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena

Guggenheim Bilbao Museoak 2023ko urriaren 24an aurkeztuko du

Marine Hugonnier: Landa-txostenak

Marine Hugonnier: Landa-txostenak

- Datak: urriak 24–urtarrilak 21, 2024
- Komisarioa: Manuel Cirauqui
- Film & Video aretoa (103)

Urriaren 24tik 2024ko urtarrilaren 21era bitartean Guggenheim Bilbao Museoak *Marine Hugonnier: Landa-txostenak* erakusketa aurkeztuko du Film & Video aretoan. Museoak bideo-artearen, ikus-entzunezko instalazioaren eta mugimendudun irudiaren adierazpide artistikoen funtsezko piezak jartzen ditu ikusgai gune horretan.

Oraingoan, aretoak Marine Hugonnier (Paris, 1969) artistaren instalazio berezi bat hartuko du. Erakusketaren pieza nagusiak, *Larre-txostena (Meadow Report)*, 2021, izenekoak, klima-aldaketari buruz argitaratutako lehenengo dokumentuetako bat nabarmentzea du helburu: “Hazkundearen mugak” edo “Meadows txostena”, 1972an kaleratua. Txosten hark Lurraren baliabideen etengabeko eta mugarik gabeko ustiapenaren ondorio kaltegarriak iragarri zituen.

Erakusketaren izenak iradoki bezala, Marine Hugonnierrek —antropologoa prestakuntzaz— artelanek “txosten” gisa funtzionatzeko duten ahalmena azpimarratzen du ikusgai jarritako obra-sortaren bidez. Halaber, artistak bere ikerlana aurrera eramateko darabilen eremuari ere “landa” deitu dakioke, bai aztergai den aldetik, bai bizi-ingurune edo ekosistema den aldetik.

Hala, erakusketaren filma, *Larre-txostena*, anbiguotasun horren erakusgarri bat da. Aretoaren erdian kokatua, filmak Givernyko lorategi ezagunaren irudikapen bat eskaintzen du; lorategi hartan margotu zituen Claude Monet margolari inpresionistak bere igebelar ospetsuak, bere bizitzako azken hamarkadetan margotu ere, kataraten erruz ikusmena galtzen zihoala. Hugonnierrek urmaelaren erdian kokatzen du kamera arratsean, bertatik lorategia, igebelar edo nenufarren hostoen ingeradak eta Moneten zubi berde ikonikoa behatzeko ezohiko perspektiba baten bila.

Filma etenik gabeko hartualdi bat da, zeluloidezko bobina oso baten 122 metroak agortu arte grabatua. Horrek muga material bat ezartzen dio filmari, eta muga hori are nabarmenago egiten du aretoan begi-bistan dagoen proiektore erraldoiaren ikuspegiak. Hartualdiaren une batean, artistak kendu egiten du lentea kameratik pelikula zuzenean ingurunearen eraginpean jartzeko. Irudi abstraktu bat da horren emaitza, filmaketa egin zen udako gau bare hartako argi distiratsuak eta bertan zeuden izakien mugimenduak islatzen dituen.

Erakusketa honen atarian eskala handiko argazki bat dago, *Biharrerantz (Towards Tomorrow)*, 2001. Alaskan, Bering itsasartearen alde estatubatuarretik Siberiako kostaldera begira hartutako irudia da. Bi leku horien arteko distantzia 65 kilometrokoa besterik ez bada ere, Siberiako ordu-eremua Alaskakoa baino 24 ordu aurrerago dago ezarrita. Argazkiak, beraz, iragana eta etorkizuna jasotzen ditu aldi berean, argazkilaritzaren berezko ezaugarri diren behin-behinekotasunaren eta memoriaren kontzeptuekin jolasean.

Argazki horren parean *Desira ez da gauza handirik, baina hala ere...* (*Desire is not much but nonetheless...*), 2015, filma dago ikusgai, Parisko Louvre Museoaren *Hermafrodita lotan* erromatar eskultura klasikoaren estudio bat. Eskultura gure aroko II. mendean dago datatua, eta gaur egun Hermafrodita datzan marmolezko koltxoia Gian Lorenzo Bernini eskultore italiarrak zizelkatua da 1622an. Hugonniarren filma greziar mitologiako pertsonaiaren gorputza aurkeztuz doa, kamerak marmolezko eskulturaren biribilguneak erakutsi ahala. Eskulturaren oinak eta ezpainak baliabide digitalen bidez animatuta daude, eta zuri-beltzeko filmaren *loop* jarraitua koloretako zenbait sekuentzia laburrek eteten dute. Filma desioa irudikatzen saiatzen da konbentzio binarioak gainditzen dituen gorputz batean, eta genero-aurreiritzirik gabeko begirada izateko aukeraz modu kritikoan gogoetatzera gonbidatzen ditu ikusleak.

Lan horiek guztiek agerian uzten dute artistak zer-nolako interesa duen irudiak hartzeko gailu tradizionalak eta dagozkien osagai teknikoak —kamerak, lenteak, pelikula sentikorak— beren mugen aurrez aurre jartzeko. Hori lortzeko eragile eta fenomeno naturalen eraginpean jartzen ditu, bere piezen ikuspegi sozialaren kontrapuntu gisa.

Marine Hugonnier. Biografia

Marine Hugonnierek, filmetan oinarrituta egiten dituen obra eta instalazioen bitartez, ideologiek, desioek eta diskurtsoek artearen errepresentazio-moduekin nola elkar hartzen duten aztertzen du. Bere praktika begiradaren politikei buruzko ikerketa bat da, eta egungo aro kapitalista modernoan boterearen atzean ezkututzen diren mekanismoak agerian uztea du helburu; izan ere, bizi dugun garai honetan azelerazio ekonomikoak eta irudien erreproduktzio-teknologiek bat eginda eboluzionatu dute, eta joera kolonialista eta patriarkal nabarmenak mantendu dituzte.

Marine Hugonnier Parisen jaio zen 1969an, eta gaur egun Londresen bizi da. Bere obra nazioarteko erakusketa ugarritan izan da, eta bakarkako aurkezpenak ere izan ditu hainbat erakundetan: Jeu de Paume, Paris; Villa Romana, Florentzia; Kunstverien Braunschweig; Die Tankstelle, Berlin; Konsthall Malmö; eta Veneziako 52. Arte Bienala, besteak beste. Gainera, museo-erakunde ugarririk dituzte Hugonniarren lanak beren bildumetan, horien artean nabarmenezkoak: Arts Council, Ingalaterra; Fundação Serralves, Portugal; Fondazione Sandretto Rebaudengo, Turin; FNAC – Fonds national d'art contemporain, Frantzia; MACBA – Museu d'Art Contemporani de Barcelona; MoMA – The Museum of Modern Art, New York; MAM – Musée d'Art moderne de la Ville de Paris; The National Gallery of Art, Washington DC; Museo Nacional Centro De Arte Reina Sofía, Madril; eta Museo Jumex, Mexiko. Marine Hugonnier, bestetik, doktorea eta irakaslea da Karlsruhe (Alemania) Arte eta Diseinuko Unibertsitatean.

Hezkuntza-jarduerak:

Inaugurazio-hitzaldia (Urriak 24)

Marinne Hugonnier bere lan-prozesuez arituko da Guggenheim Bilbao Museoko arte-arduradun eta erakusketaren komisario Manuel Cirauquirekin, eta saioan Hugonniarren filmik esanguratsuenen pasarteak ere proiektatuko dira, adibidez *Apicula Enigma* (2013) lanarenak.

Marine Hugonnier: Landa-txostenak erakusketa Museoa azken urteotan ingurumenaren jasangarritasunari lotuta garatzen ari den ekintzetako bat da.

Film & Video (103 aretoa)

Film & Video aretoa bideoarteari, bideoinstalazioari eta mugimendudun irudiari eskainitako gune bat da, eta Guggenheim Museoen bildumetako obrak aurkezten ditu, baita nazioarteko beste erakunde batzuetakoak ere. 2014an ireki zenetik, Film & Video aretoak hainbat artista bereziren sorkuntzalanak erakutsi ditu, besteak beste, hauenak: Christian Marclay, Ragnar Kjartansson, Fiona Tan, Ken Jacobs, Amie Siegel, Pierre Huyghe, Michael Snow, Javier Téllez, Diana Thater, Allora & Calzadilla, William Kentridge, Alex Reynolds, Sharon Lockhart, Monira Al Qadiri eta The Otolith Group.

Azaleko irudia

Marine Hugonnier: Landa-txostenak

Larre-txostena (Meadow Report), 2021 (fotograma)

35 mm-ko pelikula, koloretan, soinuduna, 11 min

Artistaren eskaintza

©Marine Hugonnier

Argibideak:

Guggenheim Bilbao Museoa
Marketin eta Komunikazio Arloa
Tel: +34 944 359 008
media@guggenheim-bilbao.eus
www.guggenheim-bilbao.eus

Prensa irudiak
Marine Hugonnier: Landa-txostenak
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.eus/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoz bidez, media@guggenheim-bilbao.eus

Larre-txostena (Meadow Report), 2021 (fotograma)
35 mm-ko pelikula, koloretan, soinuduna, 11 min
Artistaren eskaintza
© Marine Hugonnier



Larre-txostena (Meadow Report), 2021 (fotograma)
35 mm-ko pelikula, koloretan, soinuduna, 11 min
Artistaren eskaintza
© Marine Hugonnier



Larre-txostena (Meadow Report), 2021 (fotograma)
35 mm-ko pelikula, koloretan, soinuduna, 11 min
Artistaren eskaintza
© Marine Hugonnier



Biharrerantz (Towards Tomorrow), 2001
Lambda inprimaketa aluminio gainean muntatua
Artistaren eskaintza
© Marine Hugonnier



Desira ez da gauza handirik, baina hala ere... (Desire is not much but nonetheless...), 2015 (fotograma)
16 mm-ko pelikula eta ordenagailu bidezko animazioa
Zuri-beltzean eta koloretan, soinurik gabea, 5 min
Eskaintza: Artista eta Marian Goodman Gallery
© Marine Hugonnier

